

ABESTU DEZAGUN BERDINTASUNAREN ALDE!

Martxoaren 8

EMAKUMEEN Nazioarteko Eguna



(Berritzegune Nagusiak egindako materialaren egokitzapena)

HELBURUAK

- Abestietako mezu sexistak identifikatzeko espirtu kritikoa garatzea.
- Abestiek islatzen dituzten zenbait genero estereotipoak identifikatzeko klabeak ematea.
- Zenbait Kantetan luzatzen diren berdintasunezko mezuak gure egunerokotasunean identifikatzea.
- Berdintasunaren alde daudenak ikustarazi eta garrantzitsutzat jotzea.

EDUKIAK

- **HHE IKASLEAK ETA IRAKASLEAK**

1. Abestien letren analisia.
2. Kantek luzatzen dituzten mezuen gaineko eztabaida.

- **JARDUERA KOMUNITARIOA**

Kanta dezagun berdintasunaren alde

Sarrera

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean pausu asko eman ditugun arren, asko da oraindik faltatzen zaiguna, hori dela eta, Martxoaren 8a errebindikazioa eguna ez ezik, munduan zehar emakumeen borroka gogora ekartzeko eguna da.

Ikastetxeetan ere errebindikatu eta gogoratu nahi dugu data hau: berdintasuna testuinguru guztietan ikasten delako, beraz ikasleriari berdintasunaz ikasteko eta bizitzeko aukerak eskaini behar dizkiogu.

Helburu honekin lotuta, aurtengo proposamena ikasteko testuinguruetariko bat aukeratu dugu, musika, kanten letrak zehazki, letrak luzatzen dituzten mezuen inguruan datoz aurtengo jarduera batzuk; hau da, era kritikoan eta genero ikuspuntutik aztertu.

LAURA LUELMOren OMENEZ, ILUSTRATZAILEA



LAURA LUELMOK EGINDAKO KARTELA

ARIKETAK

(Ikasleria eta irakasleria)

- **Testua:**

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean pausu asko eman ditugun arren, asko da oraindik faltatzen zaiguna, hori dela eta, Martxoaren 8a errebindikazioa eguna ez ezik, munduan zehar emakumeen borroka gogora ekartzeko eguna da.

Ikastetxeetan ere errebindikatu eta gogoratu nahi dugu data hau: berdintasuna testuinguru guztietan ikasten delako, beraz ikasleriari berdintasunaz ikasteko eta bizitzeko aukerak eskaini behar dizkiogu.

Helburu honekin lotuta, aurtengo proposamena ikasteko testuinguruetariko bat aukeratu dugu, musika, kanten letrak zehazki, letrak luzatzen dituzten mezuen inguruan datoz aurtengo jarduera batzuk; hau da, era kritikoan eta genero ikuspuntutik aztertu.

- ✓ **Testua irakurri ondoren, komentatu testuinguru ezberdinetan ikusi ditzakegun egoera sexista eta ez sexistak.**

- ✓ **Ondorengo abestiak entzun:**

- <https://youtu.be/vFLOynWQds0> Zarena Zarelako
- <https://youtu.be/afZa5wesfE8> Konplize ditut eta

- **Ondorengo galderekin eztabaida sustatu:**

- ✓ *Abestien letraz erreparatzen duzu? Eta zer deritzozu?*
- ✓ *Uste duzu abestiek eragina dutela helarazten dituzten mezuekin pertsonen arteko erlazioetan, nesken eta mutilen arteko harremanetan, estereotipoetan?*

JARDUERA KOMUNITARIOA

Martxoak 8

- ✓ Hezkuntza komunitateko leloak ikastetxeko gune desberdinetan erakutsi.
- ✓ Goiburu edo lema guztien argazkia atera eta hezkuntza komunitate osoarekin partekatu ikastetxearen sare sozialak erabiliz.
- ✓ Jarduera guztien argazkia egin.

LAURA LUELMOren OMENEZ, ILUSTRATZAILEA



LAURA LUELMOK EGINDAKO KARTELA